

BIZKAITARRAI- BIZKAIERAZ*

www.euskerazaleak.biz
www.euskerazaintza.org

355n. zenbakia

2009 Abendua

ZAR

Gabon zoriontsuak



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

LAGUNTZAILLE

Euskalerrian euskeraz

E U S K E R A Z A L E A K

2009-2010 IKASTURTEA

BIZKAIERA 42. IKASTAROA IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: astelen, eguasten eta
barikuetan edo astearte eta eguenetan
Orduak: Goiz, arratsalde eta gabetan
Ordaña: 140 €
Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 94 423 53 22
Bilbao

42.º CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES Y CONVERSACIÓN

Días: lunes, miércoles y viernes,
o martes y jueves
Horas: Mañana, tarde y noche
Curso completo: 140 €
Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 94 423 53 22
Bilbao

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitabost euro) kontu onetan:
EUSKERAZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
2095 0000 74 2000089615

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!
Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan BBK'ra eta ordaindu 25 €.
Ez dozu ezer be idatzi bear.
Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.
Eskerrik asko!

Gabon Zoriontsuak

*Edurra teiltuan
abarra basoan
taloak erretzeko
irina auzoan...*



ABENDUKO ILLAREN OGEITA LAUEAN

*Abaltzisketa
(Tolosaldea - G)*

A - ben - du - ko i - lla - ren o - gei - ta laue - an, Je -
- sus Sal - ba - do - re - a ja - io da - go - ne - an;
gu i - pin - tze - a ga - tik es - ta - du o - be - an, e -
- rre - me - di - o du ta ze - ru - ra bi - de - an.



BIO-80a

Eguratsaren kutsadura mailea geroago eta andiagoa da munduan, eta garapen bidean dagozan errialdeetan, Txina eta India, esaterako, urte batzuk garrenean sortuko dabenagaz sano andiagotuko ei da oraindikarren.

Alan bada, kutsadura ori txikerragotuteko ardurea sortu da mundu mailan. Mundu mailako batzarrak egiten izan dira kutsadura zelan txikiagotuteko bideak aztertu eta neurriak artuteko. Batzarrak eta batzarrak egin, baia, gai onetan munduko gobernurik indartsu eta eraginkorrenak ez dabe, zoritxarrez, gauza andirik aurreratu. Interes ilunak dirala-eta, seguru antzean. Sarritan entzuten dan atxakia, olako neurriak sakon artu ezkeron, bearleku asko galduko dirala, mundu mailako ekonomiak txarragora egingo leukela, eta abar.

Artean baia, zer egin lei guretariko bakotxak, esaterako, eguratsaren kutsadura mailea

aalik eta txikerren izan daiten? Norberari mila ekintza etorri leitekio burura. Baia, eurretan bat beren-beregi agertu gura deusuet berton.

Ez da aspaldi irakurri nebana, Suitzako autopistetan abiadarik andiena 80 km/h-an mugatuteko asmoetan ebilzala. Aurki, neurri orrek auto ezbearren zenbatekoa txikituteko ezeze, eguratsaren kutsadura txikiagotuteko balioko ebalakoan egozan. Ez dabe gai onetan, antza, aurrerapen andirik egin, gaur egun bertan indarrean dagoan onartutako abiadarik andiena 120 km/h-koa da eta. Norwegian, ostera, 90 km/h-koa da onartutako abiadarik andiena. Europako lekuri geienetan 110 eta 130 km/h bitartean dago muga ori, errialde bakotxean berea, onartu daben abiadarik andiena. Zenbaki-muga oneek ezarri dira, batez be, ezbearren kopuruak apalduteko begira.

Legeak dinoana dinoala, guretariko bakotxaren, auto gidarien esku dago, eguratsa aalik eta gitxi-en loitutea. Ze, zenbat eta autoan arinago ibili, erregaiaren kontsumoa andia gotuko da sano eta beronek sortuko dituan gasak (kutsadura) aren ginoan be bai. Zer egin, orduan? Bada, bidean bideko abiadura mugeak esaten deuskunaz gane-ra, 80 km/h-ko abiadura goiko mugatzat artu, eta ortik goragoko abiaduran ez ibiltan aalegindu, batez be autopistetan ibili ezkeron.

Onegaz guztiagaz, BIO-80a (Biolarogeia) izeneko zabalkunde kanpaina otu jaku lerrootatik abia-tzea. Zeozertarako balioko aal dau!


Iniaki MARTIARTU BAKIO

EUKI GOGOAN:

BIO-80a (Biolarogeia)

- 80an ibili ezkeron, erregaia aurreztuko dozu sano.
- 80an ibili ezkeron, balizko ezbearren ondorioak txikerragoak izan leitekez.
- 80an ibili ezkeron, zeure kutsadura mailea txikiagotuko dozu sano.
- 80an ibili ezkeron, autopistetan abiadura txikerrenetik gora ibiliko zara.
- 80an ibili ezkeron, ori bai, apur bat leenago urten bearko dozu abialekutik.

Zure esku dago!





Euskerea eta Euskaldunak

Euskaldunak:

JAINKOA´ri begira milla urte askoren ikerpeneko atun-bidean (experiencia, procedimiento empírico) edo eta aztura-bidetik (crecimiento del conocimiento), ondo erindu eta biribildutako lanean, itzak euren lekuetan ondo aokatuta bete-betean egokituta geratu daitezcan, gure ARBASOAK, EUSKERAZKO gaztelu ederra egin eben. Eta BERAGAZ bizitz-oneri BEREZTASUNEZKO LEGEAN, al eben ADIERAZPEN ederrena emon eutsoen.

Ez ziran txantxetan ibili, zentzun aundiko Demokratak izanda, laztasun (severidad) eta zorroztasun (austeridad) aundikoak izan ziralako.

Euskal itzazko-esaerak, sorburuko itz´ekaz osotutako almenean eginda dagoelako, esangura dan irudizko toki ber-beran kokatzen gaitu, irudizko neurri ori, ia izkuntz gitxi baiño ez daukienak, Euskerea bakarra dala ez esateagaitik.

Gaztelerazko PLAYA itzak adibidez: "Zelako zentzuzko ulermenean irudimenduta kokatzen gaitu ?". Badauka zer ikusirik areagaz, arearen leguntasunagaz (lisura, tersura) edo eta areatutako maskor-ondarragaz ?.

ONDARTZA Euskeraz: "MASKOR-ONDARRAREKIN AREATUTA dagoan tokian kokatzen gaitu eta Laida´ko itsas-bazterrean dagoela gaiñeratu egin ezkeru...., or ! non agertzen jakuzan irudizko neurri aundi baten Laida´ko erritxoan maskor-ondarrarekin areatuta dagoan itsas-bazter orren goragarritzko toki eder ori.

Zergaitik?

Alde batetik: Euskalerrria, lenago askoz aundiagoa izan zanetik: Atlant-itsaso´tik Alemania´raiño eta Britania´tik Kadiz´eraiño zabalasunean, gure bizitzarako agertzen diran Zeru, laiño, euri, aize, lur, ur, itsaso, ibai ta mendiek daukiezan era guztiaren aldakuntzazko irudietan eta bertan bizitzak agertzen eban landaretasunezko ezberdintasun guztia, bai aizetan, lur eta ur artean dabillen izaki bizitzak, gure arbasoek zentzu aundienean izendu ebazalako”.

Bestetik: Gure ARBASOAK, Euskal-leiñu edo gizar-teko arremanetan antolatzeko “Lots andi ta begirunezko (respeto, consideraciòn) itz´ekaz oituratu ziralako” eta JAINKOAK BEREZTASUN oneri erperatutako LEGEA lots andiko kontuan artu ebalako, EKANDUAREN EGIZKO ARDATZ-NAGUSIENEAN kokatuta geratu ziran.

Egiaren azturazko ekintza orreik, berez bideratu ebazan gizadiaren eskubideak lots andiz zaintzera eta egokitasunezko bide eder orreitatik BENETAKO DEMOKRAZI on-baten, danon ASKATASUNAK



BEGIRUNEZ artzen diran JENDEKUNTZAZKO (civilizaciòn) ERRIA IZATERA gure LEGE-ZARRAK esaten dauskuen lez.

Eta Euskalerrria dalako Europa´n, oraindiño Indoeuropeozatuta-barik geratzen dan azken erria dalako.

Zer esan nai dau Indoeuropeotu gabe orrek?

Europa, Asia ta Afrika´k daukiezan izkuntzak ezaututen dabezala eta Euskerea eurak baiño zarragoa izanez gaiñ, ez dakiela non asten dan beren sorkuntza.

Gure arbasoak, Homo-Sapiens´en asieratik eraiki eben Euskerazko etxegintza oraiñ arte, zentzu-nezko izatasunean ezereen ikutu barik dagoela esan geinke.

Nai leiñu edo alderraiezko erri guztiak gure lurral-



detatik igaro arren, guk, gure Askatasunezko Demokraziaren zentzunez beti jokatuta eta bestien oiñarrizko eskubideak adeitasun andiz artuta, ez giñela joan besteak menperatzera, gure izatasun ta lurraldeak babestuz, edesti guztian menperatzaillaren etengabeko eraso-aldi bidez, gaur zazpi lurralde txiki oneitan geratuta.

Euskerea orregaitik da gaur, Munduak daukan jarraibideko (modelo, ejemplo) altxor aundiena, bere OITURAZKO EKANDUAREN izatasunean ETXEA nastu barik daukalako.

Gaurko Mundu onen jaurkintzak, edesti guztian sortu diran nastutasunezko ondoriotik (consecuencia, secuela) agertzen diranak dira eta ikusten dogu: "EKANDUZO-OREKAREN ANTOLAKUNTZAN" zelan gabiltzan, Mundu'ko giza ta erri-gizartearen eskubide guztiak zapalduta.

Kontu aundian euki bear dira Bereztasunezko LEGEA'n eginda, geratzen diran aztarnak eta "MUNDU'ko-GIZATASUNAREN ETORKIZUNEZKOAK (patrimonio Mundial) DIRALA IZENDATU", bestela, geratzen jakuzan zentzunezko ulerpide apurrak ezereztu egiten ba-dira, kai'an, itsas-gaitz aldi-baten, lotuta dagoan itsas-ontzi bateri sortuko jakon, orakarriak (amarras) apurtzen jakozanean bezala gertatuko da.

Euskereak, zelako irudiagaz itxuratzen dau Euskalerria?

Daukan NORTASUNEZKO irudiagaz zalantza barik.

Euskal-erkidetzan ulermentzeko, maitetasun guztiagaz egin gendun tresneri eder au, ez da gatzgabeko mesu-gaillu uts-bat gure artu-emonetan ibilteko bakarrik.

Bere barnean ikusten direnak: A) "JAINKOARI begira, BEREN LEGEA'rekin euki gendun oarmeneko (atención, sentido de la observación) samurtasuna" (frescura, ternura en su composición); B) "Senitarte eta erri-maillan MAITASUNEZKO ulermena": eta D) "Gure BAITA'ren (conciencia) bake edo oreka gaitik, azturazko jakintzan egin bear ginduzenak, zentzunezko ta zeatzasunaren begirun arduraz egin genduzela".

Euskal-bizitzaren indar eta babeserako emoten dauskuzan oiñarrizko azpiegitura (infraestructura, subestructura) orreik, EUSKEREAK zentzunezko zeatzasunean daukan indarragaz osotuta, berez !



kokatzen gaitu "MAITASUNEZKO GAITASUNEAN" (buenas dotes, talento), bere barnean daukan indarragaz, egin bear doguzan gauza guztietarako argitasuna emoten dauskuelako.

Aita Santi eta Olazar'tar Martin'egaz Eibar'era joaten nintzanean Euskerazaintzaren batzarretara, kanpoan gengoazala eta, gora begira, Baserriak aipatuz eskuagaz erakutsita, baten baiño sarrigo esaten eban: "Jakintsu batzuk itandu egiten dabe, Eibar'era, nundik nora agertu ziran ainbeste injiñeru, maisu, ekonomilari etabar". "Begitu non daukazuen lantegi-gintza guzti orrein sorkuntzaren ardatz-ikastetxea".

Gure arbasoak, gauzak egin eta arremanak zentzun audiz eroanda, DEMOKRAZIAREN ulermen aundi bateko bizitzara eldu ziralako eta sendimendu ber-berori sartu eutsoelako euken izkuntzari, EUSKAREA ez da edozelako tresneri uts-bat.

Bera da AMA !!, Euskal-Izatasuna bear dan zentzunezko lekutik bideratzeko.

Eta etorkizunean, bere MAITASUNEZKO ZENTZUTIK artzen doguzan NORTASUNEZKO izatasunak, Mundu guztikogizarteari, "EUSKALDUNEN NORTASUNEZKO EGI-BIDEAK ZELANGOAK DIRAN erakutsi".

Mundu oneri eta BIZITZARI emon geuntsozan



ZENTZUZKO
ULERMEN-BIDEZ
ADIERAZPENEN
ERANTZUERAK,
EUSKAL-
EKINTZAREN
BEREZKOTASUNAK
DIRALAKO”.

Gaur egunean, Mundua´ren erri-gizarteari erakutsi bear dautsagu: “EUSKALERRIA, Ludi onek daukan BEREZKO ERRI-BAT dala.

Eta ZAARRENA izanez gain, bere JENDEKUNTZAZKO (civilizaciòn) JAKINTZA, DEMOKRAZIA eder baten oiñarrituta dagoelako, nai-ta Espainol ta Frantzez menperatasunak gure gorputzan urduritasun aundiak sartu, ez dogula leer-gaillurik ez izkillurik erakutsi bear eta gutziago erabili,

Leen: “Mundu onek gaur daukazan arazoakaz, Berezko legearen arrazoitasunera aokatuta dagoelako”.

Bigarren: Leer-gaillu orreik “Gure Demokrazizko izatasunaren aurkakoak diralako eta eurak ibilteagaz, Munduko gizarteari, beste gauza-bat (ikarabidezkoak) garela erakusten dautsogulako”.

Irugarren: “Aldi baten, bearrezkoak izan ba-ziran be, gaur jokoz kanpo geratu dira, menperatzaileak edesti guztian erabilita, alperrezkoak eta gaurko Munduaren bizitzarentzat oso kaltegarriak dirala erakutsi dabelako.

Eta guk erabilita, eurak indar eta maltzurkeri geiago eukin da, Mundu´ko erri-gizartearen aurrean, euren menperatzailetasuneko maltzur joko ori arrazoitu baiño ez dogulako egiten.

Laugarren: “Ezinbesteko gogo alegiñaren indarragaz, GURE ERRI-MIÑAN, AINBESTE ZOR DAUTZAGUN MAITASUNEZKO EUSKAREA NORTASUNDU !! Len berak, gugaz egin eben antzera.

EUSKALDUNAK OR !! daukagulako NORTASUNAREN IZATASUNEZ- KOALTXORAUNDIENA, ERRIAK, BEREN IZATEZKO NORTASUNEAN, DEMOKRAZIAREN ERANTZUN EDERRENAK EMON DAGIAZAN.

Gaur, badau- kagu beste eragozpen aundibat be, betiko eta gaurko Menperatzaileak bizitzarako bear doguzan gai-mozkin guztiak euren kontrolpean eukinda, edesti guztian egin daben antzera, gaurko bizitza, xautzailletasun-argi-bideakaz ganoragabetu egin gura dabe, gizartea zoraldiko nastetasun baten sartuta, ia euren SASI-NORKERIZKO asmakuntzan aurrera egiteko al-diran.

Gu ez gara jausi bear lilluramen (fascinaciòn, alucinaciòn-ficticia) sarezo-txebera orreitan, bestela gure morroitasuna, gudakin ez ebena lortu, gure iñozokeriakaz lortuko dabelako.

Gaurko bizitza, ez da erreza Euskaldunentzat.

Gure ETXEA garbi eta argitsu agertu daiten, egin bear dogun guztia, Bereztasun onek daukan LEGEA´ren argitasunean egin bear doguzelako eta danok dakigu, zelako erreztasuna daukien guzurrezko jokoan dabizenak, norkerizko zankarteko (zancadilla) bat ipintea, ekintzan ipini bear doguzan on-zentzunezko azpiegiturak arazotzeko.

Euskaldunak baiña, eurak ez daukien iru gauza-eder daukaguz ELBURUA lortzeko: A) “EUSKAL EKINTZAN JAINKOA´ri BEGIRA, IZATASUNEZKO DEMOKRATIKOAREN SINISMENA”. B) “ARRAZOIA”. Eta d) “ARDURADUNAK IZAN DA, GOGAMEN (conceptos) BI ORREIK EMOTEN DAUSKUEN INDARRA”.

Euskal seme-alabak, aztarna orreik iñundik-iñora be ez doguz galdu bear gure ikusmenetik (visiòn, consideraciòn), kontu aundian artuta “EUSKAREA DALA GURE IZAERAREN ARDATZ-NAGUSIA”.

ATUTXA´tar PAUL
Zornotza´n 2.008`an Azaroa`ren 16`an



Aldalur

"Zer, Euskerazaleak. Eskerrik asko iii

Eguarri Jaiak badatoz eta danori
 Gabon eta Eguarri
 pozgarriak biotzez.
 Ama Birgiñak, lagun deizuela danori.

Ama Birjinia Sortzez Garbia
 bizi zera zeruetan.
 Argi eiguzu lurrekoari
 bizi gera illunpetan.
 Gure animak zeruratzeko
 artu zure eskuetan
 Jesus Jainkoa zuk ekarrita
 daukagu mundu onetan.

Bedeinkatua zera Maria
 andre guztien artean.
 Jainkoa Gizon egin zitzaigun
 zuk baimena ematean.
 Birjiña, "Ama" biurtu ziñan
 "Egin bedi", esatean
 Bere jaiotza Jai aundi degu
 Kristau guztiak batean.

Sor Justina Aldalur





Aitaren izenean



ikel, non dekozu motxila gorria?

Kuartoko armario gainean dau. artu bear badozu.

Jonek zuzen-zuzen igo ebazan logelarako amar eskailerak eta Mikelen logelan sartu zan. Aulkira igo eta armailu gainera eskua luzatuz motxila gorria artu eban.

Zertarako bear dozu motxila? galdetu eutson Mikelek.

– Afrikara noa nire ametsa betetan. Atlas mendi-lerroko tontorrik altuena zapaldu gura dot Toubkal, eta araino eltzeke kapaz nazela erakutsi nai deusat neure buruari. Eta emengo erosotasun guztiak albo batera itxita, Marokoko jendearekin bizi, eta euren oiturak ezagutu gura dodaz.

Esan deusazu amari? jarraitu eban Mikelek.

Izan be, Jonen aita K2 mendian il zan. Gailurra egin eta berantzako bidean norabidea galdu eta egunak emon ebazan beko kanpamendura iritsi ezinik. Galdu zenetik bost egunetara, kanpamendu basetik kilometro bira aurkitu eben ilda, erabat izoztuta.

Jonek sei urte eukozan guzti ori gertatu zanean, eta ama bakar bakarrik geratu zan ume txiki baten zaintzan.

Ez, gaur bertan esango deusat une egokia aurkitu ezkeru. Badakit amak asko sufrutuko dauela eta.

Abuztuaren amabian Loiuko aeroportuan beste lau lagunekaz batera. Jon Marokora egaz egingo eban egazkinaren zain egoan. Alako batean entzun eben beraien egaldiaren zenbakia megafonitik. eta motxilak bizkarrean jarririk beraiei tokaten jaken aterantza zuzendu ebezen pausoak. Bartzelonan eskala egin bear eben eta arduran egozan denbora naikoa izango ote ebeen egazkin aldaketa ori egiteko.

–1–

Egazkinean sartu zirala ordu erdi pasatu barik egoala oraindik, kapitainak egaldia atzeratu egingo zala komentatu eutsen eguraldi txarra dela eta turbulentziak egozalako.

Jon eta lagunuen asikerako ardura, azkenean bete egin zan, ezin izango eben Bartzelonatik Marokora joian egazkina artu. Orregatik Bartzelonan pasatu bearko eben gaua egazkin konpainiak ordaintzen eutsien otel batean.

Urrengo goizean ate aurrean egoan aireportura joian taxia. Maletak atzean sartu eta prest egozan Marokorako egazkina artzeko. Eta oraingo onetan bai eta lortu be...



Aireportuan zain eukien mendi gidari izango eban Laschen. Mutil argala eta altua, emoten ez eban arren bi mutikoren aita zan. Mendi andietako aize gogor eta eguzki kiskalgarriak ondo zigortutako larru-azal beltzaranduna. Eskua altzatu eta keinu esanguratsu batekin mendigoizale taldea beraren inguruan bildu eban. Aurkezpenak egin ondoren Atlas mendiko mapa zaar eta zimurtu bat atara eutsien basapean eukon kartoizko tubo potetik. An ikusi eban Jon eta bere lagunek Toubkal mendi miretsiaren kokalekua, errotulki gorritz egindako gurutze andi baten azpian.

Gurutze gorri artara eltzeko egin bearreko ibilaldiaren barn eman eutsien Laschenek, bai eta zenbat ordutako ibilbideak izango ziran eta zenbat egun bear izango ebezan euron elmugara iristeko.

Oso baikor sartu ziren bost mutilak furgonetan, motxilak kotxe gainean sare batekin ondo lotuta itxi ostean. Ordu bi errepide eskaz oietan eman

ostean, kea irensten eta asfaltuko zulo guztiak euronipurmasailetan sentituz. eski estazinora eldu ziran, gaua pasatu bearreko lekura ain zuzen. Prest eukien jaima barruan guretzako tea, Marokon ain oizkoa eta presiatua dan edaria, batez be tearen inguruan sortzen diran alkarrizketak eta giroagatik. Tea edan ostean afari kopuaren txanda eldu zan. jarira zopa lodi eta espeziaz betetakoa, eta baita kuskus platerkada edarra be. Sabela bete-bete eta berba egiteko gogoa amaitutakoan lozakuak atara eta urrengo egunean pentsatzen. lozorro sakonean murgildu ziran bizkaitar zein marokoarrak.

Urrengo eguna berebiziko eguna zan. egun argitsu eta ederra ageri jaken. Mendi tontor erraldoien artean ezerezaren pare sentitu ziran egun ikaragarri bat, Atlaseko mendietan barna norbere buruarekin bakarrik sentitzeko ainako egun bat. Amar orduz paraje zoragarri aietan pausu bat bestearen atzetik emanaz Imhil errira iritzi ziran bost

-2-


mendizaleak. Egun andia gero eta urbilago eukien mila eta zortzieun metrotara egoan erri polit aretatik. Aurreko egunean bezalaxe tea artu eben Laschenen etxeokokin, eta bizkaitarren etorrera ospatzeko musika emanaldi bat oparitu eutsien Laschenen etxeokok, pandero andi batzuen laguntzaz, noizbeinka sutondoan berotzen ebezanak soinua ozenagoa izateko.

Gaua luze egin jaken Jon eta here laguneei, irrikan baegozan Toubkal tontorra zapaldu eta bidaia guztian buruan eukiezan desio, eta eskaerak tontorreko jainkoari adierazteko. Batez be Jonek, zin egin ebalako aitaren pioleta Toubkal gailurreko burdinazko piramidean lagako ebala. Izan be amak kontatu eutson, aitaren desioetako bat Toubkal

gailurra zapaltzea zala, baina patuak desio ori bete aurretik eraman eban mundu onetatik. Alan da ze, Jonentzat derrigor bete bearreko elmuga zan Toubkal, alde batetik aitaren desioa betetzeko, eta bestetik aita bezain ona ote zan frogatu nai ebalako bere lenbiziko laumilakoa egiterakoan.

Abuztuaren 12an, goizeko 11:30etan bost bizkaitarrak Toubkal gailurrean alkar besarkatzen egozan, aurreko egunetako sufrimendua albo batera lagata, eta euron lorpenagatik oso arro. Tontorrean egin bearreko guztiak egin ostean. ixil-ixilik jeitsi ziran bidaiaren amaiera aurreratzen eban bidexka bati segika.

Borike



Garrantzizko bost gauza.

Bizitzak erakusten dauztazan bost gauza garrantzitsuak.

1- GALDERARIK GARRANTZITSUENA.

Gaxo-zaintza eskolan, nire bigarrenko sei illebetegarreneko azterketetan, ez usteko galdera bat aurkeztu euskun Irakasleak.

Ikasle zintzo lez, beingo baten irakurri nebazan galdera guztiak. Azkenengoak auxe esaten eban:¿Ze izena dau eskolea garbituten dauan emakumeak?.

Barregarritzat jo neban galdera ori.Sarri ikusi neban eskolea garbituten eban emakumea: gorputzez luze,uile illunekoa, berrogeita amar urte goraberakoa.

Baña ¿zelan jakin bere izena? Amaitu neban nire azterketea,azkenengo galdera utsean itxita.

Ikastaldia amaitu baño lenago norbaitek itaindu eutson Irakasleari, ia zer ikusirik izango ete eban azkenengo galderak. Bai,orixe lerantzun eban Irakasleak.Zuen ekitaldietan pertsona asko ezagutuko dozue.Danak dira garrantzizkoak.Danak dira adeigarriak,"egunon" adeitsuaz agurtuz.

Sekulan etxat aitzuko ikaskizun eder au. Bide batez ikasi neban eskolea garbituten ebaren izena:DOROTHY. Guztiok gara garrantzizkoak.



2-EURITEAN LAGUNTZA.

Gaubeko 11,30.Autopistako geldiuene baten afrotar-emakume adiñekoa egoan ekaitz gogorretik iges egin gurean. Bere belbilla nastu jakon eta bear-bearrezko eban ain batera joatea. Busti-bustirik egon arren, lenengo agertuko zan belbilla geldituazotzea erabaki eban.

Gazte zuri bat gelditu zan laguntzeko asmoagaz. 60 garren urteko liskarrai jamon egin barik lagundu eutson taxis bat deitu ta eskuratuz.Estu egoan andratxua ,itxuraz beintzat. Alan da be gaztearen elbidea onartu,eskertu ta alde egin eban.

Andik zazpi egunera gaztearen etxeko atean jo ta zabaldu ostean, ez usteko telebista pantalla andidun bat eskuratu eutsoen,olango oartxuagaz :Eskerrik asko

lengo gauean autopistan lagundu eustezulako.Euriak nire kanpoko erropeagaz batera barruko animoa be galdu eustan. Zorionez zu agertu ziñala ta eldu al izan nintzala nire gizona iltzear egoan unean, il baño lentxoago. Jaungoikoak bedeinka zagizala niri egindakoagaitik eta bestei doanez laguntzeagaitik.

Biotzez, NAT KING KOLE andrea.

DOANEZ EMOTEAK, EZ ZAITU BAPE BARIK ITXIKO.

3-OROITU EIZUZ SERBITZEN ZAITUZTENAK.



Izozkiak gaur baño askoz merkeago ziran egunetan, amar urteko mutiko bat dendan sartu ta mai ondoko ezarlekuan jarri zan. Emakume mai-serbitzariak urez betetako edontzia ipini eutson aurrean. "¿Ze balio dau almendradun txokolate izoztuak? itandu eutson mutikoak." "Berrogeita amar euneko" erantzun eutson mai-serbitzari emakumeak. Mutikoak poltsikotik ataratako txanponak kontatzen asi zan. "¿Ta zenbat kostatzen da izozkia,beste barik? itandu eutson barriro.

Artean, mai baten zain egozan lagun batzuk.Emakume serbitzaria urduri egoan:-" Irurogeita amabost " erantzun eban ,zakarrez. "Ba, izozkia beste barik, gure dot" esan eutson mutikoak. Emakumeak izozkia ekarri eutson ta kosta zanaren orritxua mai ganean itxi ta alde egin eban.

Mutikoak amaitu eban izozkia, ordaindu eban kutxan ta joan egin zan.

Emakume mai-serbitzaria itzuli zan eta maia garbitzen asi zanean, ezin sinistu eban bere begiak ikusten ebena: antxe ustutako azpiltxu ondoan, txanpon batzuk egozan,eraz batuta, ain zuzen be 25 euneko...saritzat utzitakoa.

EZ EPAITU IÑOZ BE,ETA IÑOR, ARINEGI.

4-GURE BIDEETAKO ANDARRIAK .

Beñola errege batek arritzar andi bat ipiñi ei eban bide-erdian. Gero ostondu egin zan begiratzuz nork kenduko ote eban arritzarra.

Etorri ziran erregearen aberetsenatariko merkataria batzuk eta apur bat bultzatuz, alde egin eben.

Erritarrak gogor salatu eben erregearen nagikeria bideak garbi ez eukitegaitik. Baña iñork ez eban kendu bidetik arritzarra.

Alango baten ortuari- zama ekarran baserritar bat urbildu zan arritzarraren ingurura. Albo batean ipiñi eban bere barazki-zama eta arritzarra mugitzen alegindu zan. Bultzaka ta ler egiñez , arritzarra kentzea lortu eban. Ortuari-xorta batzen asi zanean konturatu zan karteratxu bat egoala lurrian,arritzarra egondako tokian,ain zuzen be.

Kartera barrua urregorritzko txanpenez beterik egoan, erregeak berak idatzitako oartxuan esanaz : urregorria, arritzarra bidetik kendu ebanarentzat izango zala. Baserritarrak ikasi eban bestek ikasi ez ebena.



OSTOPOEN BIDEZ, ZURE NORTASUNA ABERASTU ZEINKE.

(Klaudio Barroetak euskeratua)

5-EZEREN TRUKE ODOLA EMOTEA.

Urte asko da ESTANFORDEKO gaxo etxe baten borondate utsean lan egiten nebala. Neskatotxu bat ezagutu neban antxe, gaitz berezi batez jota, odola aldatuz sendatu eikena. Bost urteko nebatxuaren odola jatorkon guztiz ondo, gaxo berbera misteriozki osatu bitartean, bear ziran antikuerpoak sortu al izan ebazalako.

Sendagilleak , neskatillearen nebatxuari azaldu eutson egoerea, eta galdetu eutson prest izango ote zan arrebeari odola emoteko.Ezbaiz labor baten ostean, sakon amasartuz, esan eban: Bai, emongo dot, olan salbatzen bada nire arrabea..

Odolaren emonaldi bitartean, mutikoa oian etzanda egoan bere arrebearen ondoan irripartsu, an gengozanak neskatoaren kolorea obetzen ikusten genduala. Bat batean mutikoaren arpegi-kolorea zurbiltzen asi zan, irriparra galdu ta sendagilleri begiratzuz larriturik galdetu eutson:¿ zein ordutan asiko naz ilten?

Ume-ume izanik ez eban ondo aitu sendagilleak azaldutakoa.Uste eban odol guztia emon bearko eutsola bere arrebatxuari.Eta alan da be ez eban atzera egin.

EMOIOZU DOZUN GUZTIA, MAITE DOZUNARI

***MAITATU EGIZU IÑOZKORIK GEIEN.**

***EZ EIZU GALDU ADIZKIDEAREN ADIZKIDETASUNA.**

***BIZI ZAITEZ EGUNERO FEDEAZ,BAKEAZ TA MAITASUNEZ BETETA.**

*** LAN EGIZU DIRU FALTARIK EZBAZENDU LEZ.**

*** DANTZAN EGIZU IÑORI BEGITU BARIK.**



“Zutik diraut”

Gizon ospatsu baten esaldi jakintsuak. (Jorge Luis Borges)

Bizitzaren une onetan nire izaera ia gaztetan legez aurkitzen dot.

Nire asmo, irrikak, ardurak, egin naiak, ametsak, bildurrak, mugak, lortu naiak eta zaletasunak beste garaikoen pareko dira.

Zoriontasuna ez dot inoiz be ondasun materialean jartzen; albokoa gozatzeko doaia daukot, eta ez dodanak ez nau etsitsen.

Ingurukoen balioa ta neurria kontutan artzeko zoria daukot eta eguneroko aleginaren bidez lortutakoa onartuten dot.

Nire sendiko, lagun eta lankideen begirunea egunero lortzen saiatzen naz, jakitun naz-ta zaintzen dodan begiruneaz irauten daue-la eta obetzen maitasunak, egunero biotz oneko ura erabilliz.

Maite izan dodana eta oraindik maitagarri iatana bizi bizi landuten dot, ortik artuten dodalako aurrera ekiteko kemena.

Urtetan moldadutako barne altxorra lez gordetzen dot lagun oneritzia eta dagokidan eremu ori oso nirea eta bein betikotzat daukat.

Biziki eskerturik nago euren biotz ona eskeñi deustienean, eureri esker nazalako eta gero be izango.

Dodan kemena besteek emondako konfiantzatik atara dot, orreik lagundu daustielako urte guzti oneitan nazana eraikitzen. Aurtzaroon, gazte denboran eta elduaroon bizikide izan dodazanak dira oraingo nire laguntza, urreratzen iatan zartzarorako prestatu nabielako.

Gogoan dodaz arbasoak, ibiltzen asi nintzaneko sorbalda eskeñi eustielako babes lez; orain belau sendoko izaten saiatzen naz, aideentzako babes izateko.

Oñak sendo ta lurrari atxkiak izaten alegintzen naz, sarritan nire irudipen-naian balizko gaur eta biar obe baten billa egan egiten dodalako.

Besteekiko dodazan urrintasun ,konponezin eta desberdintasunagaitik otzituten nazanean, biotza sutu daitela eskatuten dot kemena lortzeko,eta aldi berean erruak onartu eta parkamena eskatuteko berotasuna eskatzen dot.

Edozergaitik besteren batek parkamena eskatzen ba deust, azkar parkatzen eta eta aitzuten alegintzen naz. Naikoa damu izango dau berak , eta ez iagokit bidea gatxago egitea.

Nire baitan bakean bizitzen saiatzen naz, ondo dakitelako lasai bizi ez danak ezingo dabezala besteak lasaitu.

Jabetuten naz arago iotzeko irudipenaren egalak astindu bear dirala,eta olan ez dan lekura ioan daitezkeela.

Zartzarora nire lagun,gidari ta babes izatea amestetuten dot.

Era duñean bizitzen saiatzen diran jokaerak nireganatu nai neukez, beraien asmoak nireak egin eta aurrera bidean Jainkoak nai dauenez biziz.

Egun baten gorenera eldu gureko neuke, non espiritua altsu dan eta sinismena esanaiko dan.

Agiri au zabaltzeko egin dot ,bere egaladian nainora eldu daiten.

Patxi Otamendik euskeratua.





Laino pean

Laino zuri lodian murgildua
ezikusi osoan,
ametsak baino ez ikusten,
kolore guztietako ametsak.
Ene ametsik maiteenak;
anaitasunaren ametsa,
zindotasunarena
askatasuna eta
bakearen ametsa.

Egon bedi laino zuria!
Ez betor argitasuna!
Egia, izana, ez ikusteko,
izatearen gogortasuna
egiztatzeko gogorregia:
Mendekua, gorrotoa,
arrokeria eta elkar borroka
gose-gorriaren ondamendiak.

Jarraitu bediz zoritxarrak,
laino zuripean estaliak!

Palmi Merino

olerkia

Zazpi erruak



B

Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO

IPUIN SARIKETA

(BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'K, urte guztietan lez aurten be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

- Ipuinak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearke dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.
- Ipuinak asmatuak edo erriak batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
- Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.
- Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi, 14, 2ª eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer'en agertuko da, Urterrillean.
- Sariak bost izango dira:

1. ^a	300 euro	4. ^a	120 euro
2. ^a	240 euro	5. ^a	60 euro
3. ^a	180 euro		
- Ipuinak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.
- Epea azillaren azkenera arte.
- **Mesedez bialdu CD edo disketea**

EUSKERAZALEAK



ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

.....'tar
..... kalean (auzoan..... zenbakian
..... errian, errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko diru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,
an daukadan zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN "ZER". Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

GERNIKAKO ARBOLA
DA BEDEINKATUA
EUSKALDUNEN ARTEAN
GUZTIZ MAITATUA
EMAN DA ZABAL ZAZU
MUNDUAN FRUTUA
ADORATZEN ZAITUGU
ARBOLA SANTUA

MILLA URTE INGURU DA
ESATEN DUTELA
JAINKOAN JARRI ZUELA
GERNIKAKO ARBOLA.
ZAUDE BADA ZUTIKAN
ORAIN DA DENBORA
ERORITZEN BAZERA
ARRAS GALDU GERA

EUSKERAZALEAK

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colon de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

www.euskerazaleak.biz



ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO